



## ERREPORTAI IDEIAK



## ERREPORTAI IDEIAK

**EKOIZLEAK :  
PORTRETA, IBILBIDEAK**

**EKOIZPENAK :  
OHIZKOAK ETA EZ OHIZKOAK**

**LURRALDE OSOAN**

### Prentsa harremana :

Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarte  
32 Bidouze karrika —64 120 Donapale  
Tel. 05 59 65 85 47—mail : [contact@idoki.org](mailto:contact@idoki.org)



## KOSTALDEA

« laborantza oraindik bizi da Kostaldean »

Laborantza, ez da bakarrik barnekaldeko afera bat.

Lurraren gaineko espekulazioa ezin da ukatu, baina bizi nahi diren etxaldeak badira Kostaldean, janaria ekoizten eta saltzen dute tokiko jendea.

Laborantza iraunkorak, her-

riaren bizian parte hartzen du, bizigarria delakotz ekonomiko-ki eta enpleguak mantentzen dituelakotz.

Bestalde, lotura atxikitzen da laboraria eta eroslearen artean baita biharko lurra zaintzen da.

Baitezpadakoa da laborantza mota horri sustatzea ! Geroa ezin da eraiki lurra laborantzarentzat atxiki gabe !



IDOKI etxe merkatua Azkaingo Patinenea etxaldean (2010)

## XABAT BAITA ETXALDEA (URRUÑA)



## ► Etxaldea

Urruñako hiribondoa kokatzen da Xabat Baita etxaldea, Biriutuko bidean.

Etxalde ttipi hortan, betidanik ardi gasna egin da tokiko ardi buru gorri artalde batekin.

Ttottek aitamen segida hartu du 1981an.



Marie Christine orozbat lanean hasi da etxaldean 2002an.

Berriki Pantxikaren xede berriari toki bat egin diote etxaldean, Alpesetako ahuntz tropa gehituz ardier. Orain, ardi eta ahuntz esne guzia gasnatzen dute.

Etxaldean eta tokiko merkatuetan sartu dute ardi eta ahuntz gasna, freskoa eta ontua.

## ► Ekoizpenak

Ardi gasna, mamia, ahuntz gasna eta « Xuri-Goxoa »

## ► Ikusteko

Aberreak : ardiak, ahuntzak, xerriak, xakur eta gatuak. Etxaldea : jeiste-tokia, gasnatze eta ontze tokiak. Gasna jastatzea.

## ► GAEC GOXOAN

Ttote eta Marie Christine ELIZONDO / Pantxika ETCHETO Xabat baita etxea Kurleku bidea 64 122 URRUGNE / URRUÑA

GOOGLE MAPS: 43.346222, -1.718314



« Esne gasnatzea eta salmenta zuzenari esker, hiru jende bizi dira laborantzaz, Kostaldeko etxalde ttipi batean.

## PATINENEA (AZKAINA)



## ► Etxaldea

Untsain familian laborariak dira eta betidanik kofoinak ukan dituzte. Mikelari erlee-kilanko lana gustukoa du. 2002. urtean da bere kondu hasi erlegintzan.

Xantzaz, Euskal Herrian oraindik babestu guneak badira. Oihanetan, loratze ainitzei esker, ezti desbardiak egiten ahal dira. Lan horri, arta handiarekin

eramaiten du Mikelak, laborantza biologikoaren arauak errespetatuz. Erleek izadiaren osagarriaren seinale dira. Aukera ez huts egin, erleen mundua hobeki ezagutzeko !

## ► Ekoizpenak

Arkazi, gaztainatze, ilarri, elorri xuri, lore eztiak. Erlebiki, lore-errauts, ezkoa, ozpina.

## ► Ikusteko

Kofoina eta erlearen bizia Argazkiak. Ezti ateratzea.

## ► Mikela UNTSAIN

Patinenea 64 310 AZKAINA

GOOGLE MAPS: 43.353288, -1.642918



Mikelak kofolnak artatzen ditu

## ITSAS-MENDI (ARBONA)

### ► Etxaldea



ITSAS-MENDI egituran biltzen da bi laboari gazten bizi nahia.



Bidarrairain, Maryse-ren etxondoan fruitu arbolak badira, aldiz Arbonan fruitu ttipiak egiten dituzte.



Patxiren etxan, betidanik behi gorriak gizentarazi dira tokiko harakinentzat.

Abereak prunki hazten ditu, haragi mendre eta gostodun

batan lortzeko. Salmenta zuzena egiten du, haragia proposatuz kartoinetan.

Maryse eta Patxik, ekoizpe-nak bururaino eramaiten dituzte etxaldek famiaren bizibidea ateratzeko.

Aste guziz, Donibane Lohitzuneko merkaturan egoiten dira.

### ► Ekoizpenak

Ahatxekia eta behikia kartoinetan, aitzinetik manatuz.

Marrubi freskoak eta errexi-mentak (gerezia,...)

### ► Ikusteko

Abereak : ahatxeak eta behiak. Marrubi ondoak.

### ► GAEC ITSAS-MENDI

Maryse eta Patxi Doyharçabal  
Pentzian etxea.  
Senpereko bidean.  
64 210 ARBONA

GOOGLE MAPS: 43.414774,-1.547465



Bidarraiko fruitu-ondoak.

## HARANEA (ITSASU)

### ► Etxaldea



Ursumu eta Mondarrairain mendien azpian, Basaburu auzogunean kokatzen da HARANEA etxaldea.



Etxalde honek ekoizpen ainitz ekoizten ditu.

1998an, Christian Aguerrek amatxiren etxaldean plantatzen da, gune patartsuan.



Gilles Billaud (2001 urtean) eta Martine Bouquerot (2009 urtean) etxaldeko partaideak bilakatzen dira. Gaur egun, hiru lagunek lau

ekoizpen egiten dute : oilaskoa, arroltzeak, xerriak eta Ezpeletako biperra. Biperra biologikoan eramaiten dute.

Salmenta zuzena azkarki garatu dute, Basaburu auzoko etxaldeekin, ekoizpenak etxeetara ekartzen dituzte.

Donibane Lohitzuneko laborari saltegia eta AMAP erosle taldeak hornitzen dituzte.

### ► Ekoizpenak

Oilaskoak eta arroltzeak, xerriki freskoa, urdakia eta kontserbak, Ezpeletako

biper errautsa.

### ► Ikusteko

Xerriak oihanean, oilaskoak eta biper ondoak.

Ekoizpen jastatzea : sukaldari batek eginiko pintxoak.

### ► GAEC HARANEA

BASABURU auzogunea  
64 250 ITSASU

GOOGLE MAPS: 43.326879,-1.43655



## BASERRIA, LABORARIEN SALTEGIA

► BASERRIA, Idoki etxe ekoizleek elgarrekin erai-ki duten lehen saltegia da.

Donibane Lohitzuneko merkaturia ederrenetaria da, etxe ekoizle ttipi frango baita oraindik eta tokiko jendea hortik ibiltzen baita.

1994.-urtean, azoka barnean saltoki-finko bat libratu zen. Aukera hortaz baliatu zen Idoki etxe ekoizle talde bat elgarrekin etxe-ekoizpenak saltzeko. Ahalak bateratu zituzten saltokia antolatzeko, gastuak eta lana partekatuz.

Gaur egun, Idoki etxe ekoizpen gama zabala eskaintzen dute.

Urte osoan, zortzi etxe ekoizleak aldizkatzen dira denen ekoizpenak saltzeko.



## 2. IBILBIDEA —HAZPARNE



« Herriak laborantzaz bizi dira »

Ardi esneaz eta behi esneaz bizi dira hemengo etxaldeak,

ahatze gabe, behi haragita-koak hazten dituztenak.

Emazte ala gizon, denak laborariak gira, lurrari atxikiak eta kalitatezko urrats kolektiboetan (Idoki, sormarkak, laborantza biologikoan) sinesten dugu laborantza aitzina eramaiteko gure eskualdean.

Gure ekoizpenak bururaino eramaiten ditugu, kalitatezko ekoizpenak eskainiz gure bizibidea ateratzeko. Eroslearekilanko harremana funtsezkoa da gure herrien biziarazteko.

## ARTZAINAK—LE CHÂTEAU



## ► Etxaldea

1974 urtean, etxalderik gabe ziren Xalbat, Alice eta Arnaud Cachenaut-k laborantzian plantatzeko erronka bete zuten etxaldea erositzen, Bastidako Pessarrou auzoan.

1978 urtean, gasna egiten hasi ziren lehenetarik izan ziren, gastuei buru egiteko eta hiru jendeen bizibidea ateratzeko.



Ossau Irati ardi gasnaren sormarkaren lehen urratsak ikusi dituzte 1981 urtean.

2005 urtean, Anne Lise Schwartz eta Boris Mouraret, etxalderik gabe zirenak ere, etorri dira ofizioa ikasteko eta etxaldearen segida hartzeko gogoarekin.

Gaur egun, Alice eta Arnaud senar-emazteak erretretan dira.

Xalbategi lanean jarraitzen du bikote gaztearekin.

## ► Ekoizpenak

Ossau Irati ardi gasna.

Etxekoa gasna, 5 eta 10 hilabeteren artean ontzen

dute.

## ► Ikusteko

Ardiak eta xerriak. Arditegia, jeiste eta gasnatze tokia, gazitegia.

## ► GAEC ARTZAINAK

LE CHATEAU / JAUREGIA  
Pessarrou auzoa  
64 240 BASTIDA

GOOGLE MAPS: 43.411556, -1.195090



## GARAİKOETXEA (HAZPARNE)



## ► Etxaldea

Hazparne eta Lekuineko hegian den Larrarte auzoan, Garaikoetxeako behi tropa lasaiki ibiltzen da kanpoko bazkan.

1984 urtean, etxeko behi esnea gasnatzen hasi zen Dominique Aincy.

Nahitara, bi arrazetako behiak hazten ditu esnearen kalitatea zaintzeko.



Gaur egun, aprendiz baten laguntzarekin, jarraitzen du behi tropa eta gasna egiten.

Behi gasna tokiko saltegi-tan saltzen du eta ardura saltegi-tan ibiltzen da eroslearekin mintzatzeko.

## ► Ekoizpena

Hilabeteko behi gasna ttipia

## ► Ikusteko

Etxaldea, behiak eta ahatxeak. Gasna jastatzea.

## ► EARL GARAİKOETXEA

Dominique AINCY  
LARRARTE auzoa  
64 240 HAZPARNE

GOOGLE MAPS: 43.373783, -1.283525



## TTUKULUA (HAZPARNE)



## ► Etxaldea

Ttukulua Hazparnen kokatzen da, Lekuine alde gainean. Hor da, Hervé Récalde laborantzian plantatu familiako lurretan.

Aitamek kanpoan lan egiten bazuten biek, lur hauetan arditegi bat eraiki zuten eta ardi batzu bazituzten.



Laborantza gustukoa zenez, Herve artaldea hartu du

eta etxaldean obra batzu egin ditu lana erreteko moldean, adibidez, ardi jeisteko tresna jarri.

Jaz, gasna egiten hasi da Ttukuluan eta behar diren gasnatze tokiak berriak eraiki ditu.

Familiak ainitz laguntzen du eguneroko lanetan.

## ► Ekoizpenak.

Ossau Irati ardi gasna.

## ► Ikusteko

Ardiak, arditegia, eraikuntza berria (gasnatze tokia eta gazitegia).

## ► TTUKULUA

Hervé Recalde  
64 240 HAZPARNE

GOOGLE MAPS: 43.373238, -1.273739



## BETIRISASTEA (AIHERRA)



## ► Etxaldea

Etxaldea Izturitzeko harpean bidean da.



Beñat bere aitarekin hasi da laborantzian, gasna pixka bat egiten hasi ziren 1988 urtean.

1991an, ardi esne krisiari buru egiteko, Maiterekin erabaki zuten, artaldeko esne guzia gasnatzea.



Hiru urte eraman zituzten dena gasnatzeko.

2011 urtean, laborantza biologikoan jarri dira.

Gasna saltzen dute etxetik, Angeluko merkatuan eta AMAP erosle batean.

Laborantza gustukoa dute eta ardura haien jakitatea partekatzen dute gazteak errezebituz etxaldean.

Betti semeak, laborantza ikasketak segitzen ditu eta laguntza ekartzen deie.

## ► Ekoizpenak

Ossau Irati ardi gasna, gaztanbera, gasna freskoak.

## ► Ikusteko

Etxetik 3 kilometrotan da etxaldea : arditegia, gasnategia, ur zikinak sanatzeko landare-putzua.

Etxean : gazitegia, argazkiak etxalde biziaz.

## ► BETIRISASTEA

Maite eta Beñat DUHALDE  
64 240 AYHERRE / AIHERRA

GOOGLE MAPS: 43.381016, -1.223800



IDOKI etxe merkatua—  
Betirisastean (2006)



## ETXEBERRIA (DONOZTIRI)



## ► Etxaldea

Belaunaldiz belaundi, behi gorriak hazi dituzte Etxeberrian. Daniel-ek naturalki etxeko segida hartu du.

Mailux, etxaldean hasten da 1993 urtean.

1997 urtean, laborarien arteko formakuntza batetik landa, behiaren salmenta zuzena hasi zuten. Eskualde

hontan lehenak izan ziren, helburua delarik familiaren bizibidea etxaldetik ateratzea.

Kalitatezko haragia eskaintzeko, arta handienarekin bazkatzen dituzte kabalak.

Axoa berek sukaldatzen dute ahatxekia eta behiaren rekin. Haragia jendearen etxera ekartzen dute.

## ► Ekoizpenak

Axoa kontserbak. Haragia kartoinetan, aitzinetik manatuz.

## ► Ikusteko

Behitegia, ahatxeak, behiak eta zezena.

## ► ETXEBERRIA

Mailux et Daniel PETRISSANS  
64 640 DONOZTIRI

GOOGLE MAPS: 43.334637, -1.221421



## BAIGORRI ETA ALDUDEKO IBARRAK

« Baigorri eta Aldudeko ibarrean, hamar bat etxe ekoizle gira.

IDOKI kalitate agintza pean gira, etxalde ttipien ezagutgarri baliagarria baita.

Hautatu dugu kanpoarekin eta mendiaren lan egitea, ez bada beti errex ere.

Gure etxaldetako lehengaiekin ekoizpenak lantzen ditugu eta erosleari eskaintzen, direktuki.

Hautu horri esker, gure etxaldeak bizi dira eta herriko bizian parte hartzen dugu.

Gure etxaldetako ateak idekiz, gure eguneroko bizia erakutsi nahi dugu.

Kintoa xerriakia, Ossau Irati ardi gasna, behi gasna, fruitu eta landareak, Irulegiko arnogintza : lurak ainitz emaiten dauku !

Ibarreko Idoki ekoizleak.



### ZIRRITENBORDA (BAIGORRI)



#### ► Etxaldea

Zirritenborda, Mentako mahastien bidean da.

Etxaldeko ekoizpenak balorizatzen dira urrats guztiak.

Etxaldean Ossau Irati ardi gasna egiten da 1990 urteaz geroztik, Irulegiko mahastibat bada, eta Kintoa xerri batzu.

Eñaut-en gasna famatua da,

hainbat aldiz saristatu baitute gasna leiaketetan. Gasnak luzaz ontzen ditu, 12 hilabetez goiti, gasnaren gustu paregabea agertzeko.

Gasna etxetik edo tokiko merkatuetan saltzen du : Baigorri, Garazi, Ezpeleta eta Angelun.

#### ► Ekoizpenak

Ossau Irati ardi gasna

#### ► Ikusteko

Arditegia, jeiste-tokia, gasnategia eta gazitegia. Ardiak eta xerriak. Ekoizpen jastatzeari.

#### ► ZIRRITENBORDA

Eñaut Haritschellar  
64 430 BAIGORRI

GOOGLE MAPS: 43.180229, -1.339237



### AMEZTIA (BAIGORRI)



#### ► Etxaldea

XVII.menteko etxaldea, Geremieta auzoan kokatzen da.

Ardi hazkuntzaren ondoan, Irulegiko sormarka pean den 7 hektareko mahastia eramaiten dute.

Jean-Louis Costérak, lehen arnoa atera zuen 2001 urtean : arno beltza, gorria eta xuria egiten du.

Eguneroko lanak mahasti-

gintzan eramaiten ditu Frantxoa langilearekin. Gexan ilobak, mahastigintzan plantatzeko gogoa du. Orai arte, hiru urtez, beste mahastizain baten etxan lan egin du, ofizioa ikasiz.

Sotoko lanetan ikusten dira biak.

#### ► Ekoizpenak

Irulegiko arnoa : beltza, gorria eta xuria

#### ► Ikusteko

Mahastiak Gexan-ekin.

Sotoaren bisita eta arnoaren jastatzeari Jean Louis-rekin.

#### ► AMEZTIA

Gexan COSTERA  
Bikari  
64 430 BAIGORRI

GOOGLE MAPS: 43.171899, -1.315595





## KAIKU BORDA SALTEGIA, ORTZAIZEN

KAIKU BORDA ezinago hobe-ki kokatua da Donibane Gara-zi eta Baigorriko bide jun-tan, Ortzaizeko ofizialeen herrixkan.

Bizpahiru etxe-gasna egileek abiazi xedea da.

2009.urtean, saltegiak buil-ta berria ezagutu du zortzi kide berrien sartzea eta Emi-lie langile gisa hartzearekin.

Tokiko laborantza herrikoia

ezagutarazi eta kalitatezko etxe ekoizpenak eskaini na-hian, saltegiko partaide gu-ziak bederen kalitate urrats kolektibo (sormarka, biologi-koa, idoki) batean engaia-tuak dira.

Urte osoan, etxe ekoizpen gama zabala biltzen dute : baratzekiak, esnekiak eta gasnak, haragiak eta xarku-teria, jaki prest-eginak, sa-garinoa eta sagar-jusak,...

Udan, ostegun goiz guziz, aldizka etxaldean ateak ide-kitzen dituzte erakusteko nola lan egiten duten. Goi-zaldia ekoizpen dastaketa batekin bukatzen da salte-gian.

Saltegian bertan, atsedentokia antolatu dute : infor-mazioa lasaiki eskuratzeko edo hurrekin jolastatzeko gune aproposa da.

## OHETA (ARROSA)



### ► Etxaldea

Hiru belaunaldi bada, etxeko semeek etxaldearen segida hartzen dutela Ohetan.

1987 urtean, Jean Michel-ek, aitaren segida hartu zuen.

Gustuz, behi esnadunak jarri zituen eta laborantzaz ba-karrik bizitzeko asmoa zuen.



2004 urtean, Sylvie denbo-ra osoz hasi da etxaldean, behi esnea gasnatzeko eta saltzeko xedearekin.

Esne gordinarekin, bi gasna mota egiten dute, bata fres-koa, bestea bederen hiru hilabetez ontzen dutena.

Gasna guzia tokiko merka-tuetan saltzen dute. Astean lau merkatu egiten dituzte : Garazin (astelehena), Ezpe-letan (asteazkena), Kanbon (ostirala) eta Baionan (larunbata).

Beste IDOKI etxe ekoizle batzuekin, KAIKU BORDA saltegia ideki dute Ortzai-zen.

### ► Ekoizpenak

Behi gasna (freskoa) eta gasna ondua (3 hilabete baino gehiago)

### ► Ikusteko :

Behiak eta ahatxeak, behite-gia, jeisteko tokia, gasnate-gia eta gazitegia.

### ► OHETA

Sylvie eta Jean-Michel  
BRUST  
64 780 ARROSA

GOOGLE MAPS: 43.237532,-1.311177



## LEIZARXOLA (ANHAUZE)



### ► Etxaldea

Laborantzan hasi aitzin, Aitor PORTUONDO marinela zen. Lurgabe ainitzen gisa, lau urte eraman ditu lurra atxeman aitzin Munoa men-di azpian, Anhauxen.

2007 urtean hasi zen medi-kuntzako landare eta landa-re aromatikoak landatzen, biltzen eta xukatzen.

Gaur egun, hogeitahamar

bat landare mota ekoizten ditu Leizarxolan.

Primaderan, mendian ibilki da landare salbaiak eskuz biltzen toki babestuetan.

Xukatzea ahal bezain ezteki eraman behar da landare bakoitzaren gustua atxikitze-ko. Landareak infusioan edaten dira.

### ► Ekoizpenak

30 bat belar-edangarri.

### ► LEIZARXOLA

Aitor de PORTUONDO  
64 220 ANHAUZE

GOOGLE MAPS: 43.165639,-1.27786 (baratzea)  
GOOGLE MAPS: 43.168448,-1.272742 (landareen xukatze tokia)



## XALBADORRENEA (UREPELE)



## ► Etzaldea

Urepeleko etxalde ainitz bezala, Xalbadorrenea etxalde ttipia eta gune menditsuan kokatzen da. Hor du, Xole AIREk laborantzaren plantatzeko xedea bururatu.

Ardi eta behi hazkuntaren ondoan, Kintoa xerriak hazten ditu, mendia ahal bezain bat baliatuz.



Galtzekotan zen xerri arraza berreskuratu da, tokiko laborarien lanari esker.

Hazkuntza moldeak eragin handia du haragiaren kalitatean.

Xerriak librokori hazten dira, pentze edo oihanetan, denbora hartuz. Kintoa urdazpia ezagutua da, bederen 16 hilabetez xukarazten baita.

Xolek, xerriak BELAUN haragi pikatze gelan, transformatzen ditu berak. Haragi freskoa zuzenean saltzen du eta jendeen etxera eramaiten du. Merkatu batzu ere egiten ditu urtean zehar.

Ibarreko beste laborariekin, Xolek lan azkarra eramaiten du bortuko laborantza biziarazteko.

## ► Ekoizpenak

Kintoa haragi freskoa aitzinetik manatuz, kontserbak eta urdakiak.

## ► Ikusteko

Etzaldea, xerriak parketan eta ekoizpenak.

## ► XALBADORRENEA

Xole AIRE  
64 430 UREPELE

GOOGLE MAPS: 43.064765,-1.418408



## ALASTA (ALDUDE)



## ► Etzaldea

Alasta, Aldudeko karrikan kokatzen, erreka bazterrean. Denboran, amatxi eta aitatxik, ardi eta behi esنادun batzu bazituzten. Eztitxu SABAROTS, etxaldera heldu da 2006 urtean. Etxaldeko fruitu-ondoak eta fruitu ttipiak lantzen ditu. Fruituak berak transformatzen ditu eta ekoizpen mota frango zabala eskaintzen du : erreximentak, gelerak, bahakiak, siropak, fruitu



konpotak, fruitu pastak. Lur eremu gutxi izanki, fruituen dibertsitatea lantzen du.

## ► Ekoizpenak

Andere mahats gorri, andere beltza, maxuxa, maxuxa gorri, arabarba, sagarra, udarea, mertxika, pikoa, irasagarra, arana,...

## ► Ikusteko

Sagardia, landareak, transformatze gela.

## ► ALASTA

Eztitxu Sabarots  
Mamiño  
64 430 ALDUDE

GOOGLE MAPS: 43.100262,-1.429436



## LEKUKOTASUNA

**ALDUDEko ibarra ederra da !**

**Laborarien lanari esker, bortuko laborantza bizi da eta bazterrak eder atxikitzen dira.**

Xole eta Eztitxu bi emazte gazte dira. Kanpoan lan egin ondoan, hautatu dute laborari izatea, bortuko herri batean.

Familiako etxalde ttipi batean plantatu direnez, ekoizpena bururaino eramaiten dute saltzeraino.

Laborantza iraunkorrari atxikiak dira eta eguneroko lanean, arta handiena hartzen dute abere eta landarekin, kalitatezko ekoizpenak lortzeko.

Salmenta zuzena garatu dute eremu aski hurbil batean.

Gaur egun, bi emazteek probatzen dute, laborantzaz bizitzen ahal dela !





## JAIKO BORDA (AINTZILE)



### ► Etxaldea

« Ahuntzak maitagarriak dira, hauei esker nere bizia eraiki dut » erran dezake Claude Kratochvil-ek.

Laborari bilakatzeko ditu indarrak eman Claude-k. Nahikunde handi bati esker, bere tokia egin du Aintzile alde gaineko Jaiku Bordan.

Jakinik ez dela etxalde batean sortua, laborantzan plantatzeko ibilbidea ez da errexena. Baldintza horietan, zailena da etxalde bat

eta lurrak atxemaitea. Dirua atxeman behar da.

Beste laborari batzuen etxen ofizioa ikasi eta formakuntzak jarraiki ondoan, GFAM LURRAREN sustengua ukan du Jaiko Bordako lurrak alokaidatzeko.

Pirineotako ahuntz tropa bat eramaiten du eta gasna onak egiten ditu. Arraza hortako ahuntzak ontsa egokitzen dira gune patartsuetan, kalitatezko esnea emanez. Jastaketa on !!

### ► Ekoizpenak

Ahuntz gasna eta gasna freskoak.

### ► Ikusteko

Ahuntztégia, Pirineotako ahuntzak, gasnak moldetan ezartzea.

### ► JAIKO BORDA

Claude KRATOCHVIL  
64 220 AINTZILE

GOOGLE MAPS: 43.13411,-  
1.196074



## UHARTIA (GAMARTE)



### ► Etxaldea

Konpostelako bidea etxalde ondoan pasatzen da, Gamarteko karrikan. Geldialdi goxo batentzat gelditzen dira beilariak, etxaldeko ekoizpenekin gosaltzen beit dira.

Gaur egun, lau jendeek lan egiten du eta bizi da Uhartian.

1974 urtean, Mixel eta Mikel laborantzan plantatu ziren behi esnadunekin. 1990 urtean, kiwa fruitu arbolak ezartzen dituzte.

2009 urtean, Iñaki semeak gasna eta esnekiak egiteko gela bat sortzen du.

2010 urtean, laborantza biologikoan jarri da etxaldea.

Ekoizpen gama zabala saltzen dute etxetik, tokiko merkatuetan eta Kaiku Borda etxe ekoizleen saltegian.

### ► Ekoizpenak

Behi gasna, gasna freskoa (gatzatua, baratxuri/porrutipula), yogurtak. Kiwa erreximenta, kiwa fruitua irailean.

### ► Ikusteko

Behiak, gasnategia, ur zikinak sanotzeko tokia (lastoa eta landareekin). Kiwa arbolak.

### ► UHARTIA

GAEC BIOD  
BERHOCOIRGOIN familia  
64 220 GAMARTE

GOOGLE MAPS: 43.200773,-  
1.142966



## MENDDIA (LEKUNBERRI)



### ► Etxaldea

Menddia etxaldea Hergarai ibarrean da, Iratiko bidean.

Bada hiru belanaudi, ardi gasna egiten dela etxaldean.

1930 urtetan, Arño aitaxi auzotik jin zen etxalde honen segida hartzeko.

1984 urtean, Jojo semeak etxaldea hartu zuen, ardi eta behi tropa emendatuz.

2009 urtean, Maider bere

alabak eta Jean Marc bere lagunak, etxaldean segida hartzen dute. Gaur egun, hiruek lan egiten dute etxaldean, esne guzia gasnatuz.

Ekainean, artaldeak mendira doaz, hortik hurbil. Nahi duenak ardietara joaiten ahalko da arratsaldearekin.

### ► Ekoizpenak

Ossau Irati ardi gasna

### ► Ikusteko

Arditegia, jeiste-tokia, gasnategia eta gazitegia. Ardietara joaitea.

### ► MENDDIA

GOYHENEIX familia  
64 220 LEKUNBERRI

GOOGLE MAPS: 43.130863, -  
1.148774



## AMIKUZE—OZTIBARRE

Amikuzeko eskualdean, laborantza intentsiboa eramaiten da bereziki artoaren inguruan.

Etxe ekoizle guti izanagatik, kalitatean bermatzen dituzte urratsak, ekoizpena bururaino eramaiteko eroslea arte.

Gazteek berrikuntzak ekartzen dituzte, erakutsiz ere laborantza iraunkorrari atxikiak direla.



## KAIKU BORDA (MITHIRINA)



## ► Etxaldea

Alain DOMINI, Okzitaniako Tolosan sortu da.



Hirian bizitu da, beste bizi bat hautatu aitzin.

1993 urtean, artzain soil gisa plantatzen da laborantzaz.

Urte bat berantago, Mithiriñako Kaiku Bordara heldu da ardi buru xuri artaldearekin.

Hastetik, Alain-ek esne guzia

berak gasnatu eta saldu du. Ekoizpena hastetik bururaino eramaitea oso gustukoa du.

Laborantza biologikoaren arauen berme lan egiten du.

## ► Ekoizpenak

Ossau Irati ardi gasna, zemerona eta yogurtak esne sasoinen (martxotik agorri-la arte)

## ► ikusteko

Ardiak, arditegia, gasnategia eta gazitegia.

## ► KAIKU BORDA

Alain DOMINI  
64 120 MITHIRINA

GOOGLE MAPS: 43.298321, -1.079835



Xakurraren lana ardiekin ...

Ardi jeistea eskuz



## MANTENUNEA (AMENDUZE)



## ► Etxaldea

Mantenunea herriko plaza-tik 400 metrotan da.

Ttele artzain soil zen Arño-ren etxaldera jin aitzin, 1988 urtean.

Alokairuan ziren lur batzu elgarrekin erosi zituzten, bi artaldeak finkatzeko gisan.

1997 urtean ziren gasna egiten hasi. Gaur egun dena saltzen dute etxetik eta Donapau-leko merkatuan.



Arño erretretan sartu berria da, kide bezala jarraitzen du etxaldean eta ostiraleko

merkatua egiten Donapaulen.

Laborantza biologikora pasatzeko urratsak eramaiten dira etxaldean.

## ► Ekoizpenak

Ossau Irati ardi gasna, zemerona esne sasoinen.

## ► Ikusteko.

Ardiak, arditegia, gasnategia eta gazitegia.

## ► MANTENUNEA

Ttele LEIZAGOIEN eta Arno THICOIPE  
64 120 AMENDUZE

GOOGLE MAPS: 43.355492, -1.03933





## BRUKIZA (BURGUETE ERREITI)



## ► La ferme

Mathieu eta Laurence anai-arrebak dira, 33 eta 31 urte dute eta berriki familiako etxaldea hartu dute.

Familiako ohidura atxikitze-ko eta ontasunak baliatzeko dira laborantzan hasi biak. Zurrezko ahuntztegi berria eraiki dute, Alpesketako ahuntzak jarri eta gasna egiten hasi dira.

Laborantza biologikoan eramaiten dute hazkuntza, ahuntzak egunero ateratzen

dira Brukizako oihanera.

Ahuntzen esnea gasnatzen dute, gasna freskoak eta onduak egiten dituzte.

Mathieu eta Laurence-ek etxaldeko ateak jendeari idekitzen dituzte arratsalde-guziz, etxaldea eta ahuntzak erakusteko. Haien lana esplikatzen dute.

## ► Ekoizpenak

Ahuntz gasna eta gasna fresko bereziak.

Kiwi jusa eta erreximenta. .

## ► ikusteko

Ahuntztegia, ahuntzak, gasnategia eta gazitegia.

## ► BRUKIZA

Laurence & Mathieu BESSOUAT  
64 270 BURGUE ERREITI

GOOGLE MAPS: 43.42743,-1.070917



## ESNE LUMA (IZURA-ASME)



## ► Etaldea

Jazko udan dira ESNE-LUMA izozkiak jastatu ahal izan lehen aldikotz.

Bere aitaren erretreta joaitarekin, Pantxikak proiektu berri bat gogoetatu du eta izozkiak egiteko tokia eraiki etxaldean. Olizetxerriko ardi esnearekin egirik dira.



Amarekin, ardi buru gorri artaldea joanarazten dute. Esnearen parte bat baliatzen da aroma naturalekin

izozkia egiteko.

Izozkiak etxaldean, merkaturatan eta ostatu batzuetan preziatzen ahal dira.

## ► Ekoizpenak

Ardi esnekilanko izozkiak : naturala, banilla, xokolatea, marrubia, eztia eta intzaurrekin.

Unitatea edo pinta-erdia.

## ► ikusteko

Arditegia eta ardiak. Izozki egitea ikusgei.

## ► OLIZETXERRIA

GAEC GEROARI  
Pantxika et Graxuxa Predaigne  
64 120 IZURA-ASME

GOOGLE MAPS: 43.257081,-1.057191



## LUKUBEHERRIA (IHOLDI)



## ► Etaldea

Etxaldea Iholdiko jauregiaren ondoetan da. Ohizko etxalde ttipi bat da hamar bat behi gorriekin.

Eric eta Solonge BIDART-ek kanpoko baratze gintzan abiatu dira, aktibitate osagarri bat gehitzeko.

Behien gotza baliatzen duten alorren ontzeko, lana gehien bat eskuz eramaiten dute, izan dadin belar kent-

zea edo barazki biltzea.

Sasoineko barazkiekin zareak osatzen dituzte inguruko familia batzuentzat, gaineratakoa tokiko ostatuer saltzen dute.

## ► Ekoizpenak

Sasoinen arabera : entsalada, tomate, albarjina, leka, biper ezia, kalabaza (kuria), porrua, lursagarra, aza, tipula, baratxura, landare aromatikoak (pertzila, basilika)

## ► ikusteko

Barazki landareak alorrean.

## ► LUKUBEHERRIA

Solange eta Eric BIDART  
64 640 IHOLDI

GOOGLE MAPS: 43.268894,-1.180564





## XIBEROA

## « Laborantza baitezpadakoa da Xiberoko ekonomian »

Xiberoko enplegüaren herena laborantzan da, herrien bizibide naüsiatarik bat da.

Etxalde gehienak txipiak dira, ardi esnadün eta haragietako behiekin bizi dira.

Etxalte hanitx, bortüa gabe ez lirateke bizi. Xiberoko ohidüreen arabera, etxalde güziek kabaleak bortüalat igorteko züzena badüe. Egünko egünean ere, olhal-

teen bizia adosten da partzueren artean.

Xiberoak bizibideak eskeintzen dütü.

Etxalte txipienak, kalitate egiteari hobe dira lotü, ahal den heinean ekoizpenak hobeki saltzeko.

Azken urtetan, leküko ekoizpenak balorizatü nahiz, talde berriak sortü dira.

Bestalde, geroago eta laborari haboro salmenta züzena

lotzen dira.

IDOKI etxe ekoizleek emeki emeki ekoizpen eskaintza zabaltü düe, egünoroztako janaria proposatüz leküko jenteari.

Adibide gisa, Iruriko Gohetx laborari taldeak urte orotan saltegia idekitzen dü.

Güne baliosa da, leküko laborarien engaiamentüaren ezagützeko eta kalitatezko ekoizpenak gozatzeko !



Iruriko Gohetxea saltegiaren estrena (2008ko uztaila)



## GOHETXEA (IRURI)



## ► Etxaltea

Gohetx etxaltea bide bazterean da, Iruriko karrikan.



Johaine familiako etxalteen plantatü da behi esnadün tropa ttipi batekin.



Leküko sagar barietateak lantatü dütü etxeko sagardoian eta sagar jüs amiñi bat egiten dü. Bestalde, Johainek jakitate bildü dü



medikuntzako lantareetan, belar-edangarri gisa baliatzen dira.

Laborantza biologikoan eramaiten dütü sagar-ondoak eta lantareak.

Berriki, etxalterik gabe den Sacharekin alkartüko da Johaine. Alkarrekin etxaltea

## ► ikkusteko

Etxaltea eta kabaleak, saltegia

## ► GOHETXEA

Johaine ETXEMENDI  
64 470 IRURI

GOOGLE MAPS: 43.135022, -0.875238



## ARDAKOTXIA (LARRAINE)



## ► Etxaltea

Ardakotxiako olha 1000 metroko goratarzünear kokatzen da, Holtzarteko arroiaren alde gainean.

Francis Poineau artzain soila da. Bada 25 urte, Ardakotxiako olhaltea baliatzen düala, maiatzaren 20etik setemerearen 20ala.

Langile batekin lagüntzarekin, lau artalde zaintzen

dütü, jeisten eta gasna egiten bortüan. Astebürüz, familia goiti horra zaio.

Lurrik gabe izanki, negüa igaraiten dü Mitikilen. Uthurralt familiarekin artaldeak boti eta, gasna egiten düe.

## ► Ekoizpena

Ossau Irati ardi gasna.

## ► Bidea

Logibarre eta Holtzarteko zübitik (2 oreneko ibiltea), bestenaz autoz Larrainerik.

## ► ARDAKOTXIA

Francis POINEAU  
64 560 LARRAINE

GOOGLE MAPS: 43.003716, -0.909944

